

OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEN ZERGAREN ARAUDIA

74/2006 FORU DEKRETUA, azaroaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onartu da.

(ALHAO, 145. zk., 06-12-22koa)

Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauak Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko araudia onartu zuen. Xedapen orokor horren ezaugarrietako bat izan zen ordura arte zerga horren garapen araudian agertzen ziren xedapenak sartu zirela Foru Arauen mailan.

Memento honetan beharrezkoa da maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua garatzea, arautegiari dagokionez. Eta, hain zuzen ere, arautegiaren garapen hori da Foru Dekretu honen xedea.

Foru Dekretua lau titulutan banatzen da. I. tituluaren zergaren antolaketarako xedapen orokorrak ezartzen dira, eta lehenengo titulu horretan jasotzen dira, baita ere, besteak beste, "mortis causa" eskurapenentarako, dohaineko "inter vivos" eskualdatzeentarako eta bermeen arloko zerga oinarria zehazteko arau bereziak. Horrez gain, peritu tasazio kontrajarriaren prozedura arautzen da ere.

II. tituluaren zergaren kudeaketa azaltzen da. II. titulua osatzen duten kapituluetatik lehenengoak arau orokorrak arautzen ditu. Bigarren kapitulua bost atalek osatzen dute, eta horietan honako gai hauek jorratzen dira: aurkezpen epea, luzapena eta etetea, dokumentuak aurkezteko lekua, eskumen gaiak, izapidetza, likidazioa eta zergaren ordainketa.

III. tituluak prozedura bereziak arautzen ditu, hala nola, zerga egitateen presuntzioa, jaraunspen ondareari ondasunak gehitzea, zerga ordaindu eta gero azaltzen den kausatzailearen zorren kenkaria eta dohaintza hartzaileak ordaindutako dohaintza emailearen zorren kenkaria.

Azkenik, IV. tituluaren ixte erregistrala arautzen da.

Aztertu dira gaiaren inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena, bai eta Kontsultarako Batzordeak egin duena ere.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

XEDATU DUT:

I. TITULUA ZERGAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA IZAERA ETA XEDEA

1. artikulua.- Izaera eta xedea.

1. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga zuzena eta subjektiboa da, eta zerga horren Foru Arauan eta Foru Dekretu honetan ezarritakoari jarraiki, pertsona fisikoek irabazi asmoarekin eskuratu dituzten ondasun gehikuntzak zergapetzen ditu.

2. Pertsona juridikoek zerga honetan aipatuta dauden ondare gehikuntzak lortzea ez da zerga honen menpean geldituko, eta sozietateen gaineko zergaren menpean jarriko da.

2. artikulua.- Zer da ondare gehikuntza.

Ondasun eta eskubideak eranstea da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpeko ondare gehikuntza, baldin eta haiek pertsona fisiko baten ondareari eransten bazaizkio eta eranste horren kausa Zergari buruzko Foru Arauan zerga betebeharra sortzeko zehaztaile gisa itxuratuta dagoen zerga egitateren bat egitea bada.

3. artikulua.- Zerga honen menpean ez kasuak.

Honako hauek ez daude Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean:

- a) Baimendutako jokoetan lortutako sariak.
- b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpeko kalte ordainak eta gainerako sariak.
- c) Ongintza-, irakas-, kultura-, edo kirol-helburuak edo gizarte ekintzak xede dituzten erakunde publikoek edo pribatuek ematen dituzten diru laguntzak, bekak, sariak, primak, haborokinak eta sorospinak.
- d) Korporazioek, elkarteek, fundazioek, sozietateek, enpresek eta gainerako erakundeek beren langileei, enplegatuei eta soldatapekoei emandako kopuruak, prestazioak edo onurak, baldin eta lan kontratutik zuzenean edo zeharka badatoz, eta haiek itundutako aseguru baten bitartez ordaintzen diren arren.
- e) Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen eta Pentsio Plan eta Fondoen onuradunek prestazio gisa jasotzen dituzten kopuruak. Horretarako, xedatuta egon beharko du prestazio horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergakoa den eta hartzaileari dagokion zerga oinarrian sartzea.
- f) Hartzekodun batek aurreko zorra ordainduko dela bermatzeko egindako bizi-tza aseguruaren kontratu baten onuradun gisa jasotako kopuruak, baldin eta inguruabar horiek behar bezala frogatuta badaude.
- g) [\(5\)](#) Foru komunikazioa desegitean alargundutako ezkontidearen alde edo izatezko bikotekidearen alde (bikotea Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik eratu bada) jakinarazitako ondasunen erdia ordaintzeko egiten diren adjudikazioak.

4. artikulua.- Zerga egitateak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekiko bateraezintasuna.

Zerga egitate bakar bati ezin izango zaio eskatu eskubide bakar baten ordainketa baino gehiago, baina dokumentu edo kontratu bakar batean zergaren menpeko kontzeptu bat baino gehiago jasotzen badira, aipatutako eskubidea eskatuko zaio horietako bakoitzari, bestelakoa zehazten den kasuetan izan ezik.

Ondare gehikuntza bera ezingo dute inolaz ere batera zergapetu Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak.

II. KAPITULUA ZERGA EGITATEA

5. artikulua.- (5) Zerga egitatea.

1. Ondokoak zerga egitateak izango dira:

a) Ondasunak eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo oinordetzako beste tituluren baten bidez eskuratzea.

b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta "inter vivos" negozio juridikoz eskuratzea.

Doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten jaraunspeneko oinordetza eskubideak xedatzearen ondorioz, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat.

c) Bizitza aseguruaren kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, baldin eta kontratugilea onuraduna ez bada, Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen gaineko Errentari buruzkoaren, 18.a) artikuluan espresuki araututako kasuetan izan ezik.

2. (2) Aurreko idatz zatiko a) letran aipatuta dauden eskuraketak kausatzailea hiltzen den egunean hartuko dira gauzatutzat. Hori dela eta, zerga eskatzeko nahikoa izango da eskualdaketaren egitate sortzailea frogatuta egotea; agiriak, inbentarioak edo banaketak egin ez edo autolikidazioa aurkeztu ez bada ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ezingo zaie aplikatu jaraunspenezko eskuraketei, baldin eta berauek eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen, oinordetza eskubideei uko egiteko oinordetza itunen edo komisarioak edo gozamedun ahaldunak testamentu ahalordea baliatzearen ziozko ekitaldien, edo botere hori iraungitzen duen edozein arrazoien ondorio badira, edozein izanda ere azken horiek hartzen duten forma.

6. artikulua.- (5) Oinordetza tituluak.

Jaraunspenaz eta legatuaz gain, honako hauek dira, besteak beste, oinordetza tituluak zerga honen ondoretarako:

a) "Mortis causa" dohaintza.

b) Oinordetzako kontratuak edo itunak, eragina noiz duten gorabehera.

Hala, oinordekoa izendatzen denean, unean bertan ondasun eta eskubideak eskualdatuta, zerga ondoreetarako oinordetza titulutzat har dadin, ondasunen eta eskubideen titularrak horien oinordetza agintzeko borondatea duela egiaztatu beharko da.

Oinordetza agintzeko borondatea azaldu ezean, eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza ituna doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da.

Ondore horietarako, oinordetza agintzeko borondatea azaldu dela ulertuko da, baldin eta kausatzaileak oinordekoa(k) izendatzen bad(it)u bere ondasun eta eskubide guztien gainean, unean bertan ondasun eta eskubide batzuk soilik eskualdatu arren.

Era berean, oinordetza agintzeko tresna horrek izaera berbera izan beharko du, hau da, borondate hori oinordetza itunean jaso behar da.

Oinordekoa izendatzean, unean bertan eskualdatuta ondasun eta eskubideak, ez badira ondasun eta eskubide guztiak sartzen, doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da.

Halaber, doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da oinordekoa izendatzea, ondasunak eta eskubideak unean bertan eskualdatuta, baldin eta ondasuna edo eskubidea eskualdatzaileari edo beste pertsona edo erakunde bati itzultzeko aurreikusten bada edo halako baldintzak ezartzen badira.

c) Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta erakundeek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzkitzeko balio duten egintzak, haien modalitatea edo izena edozein izanik, baldin eta Foru Dekretu honen 5. artikularen 1. idatz zatiko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan berariaz xedatuta ez badago kopuru horiek jasotzeagatik zerga ordaindu beharra.

d) Testamentu betearazleei beren lana egiteagatik testamentugileek esleitutako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzkitzeko balio dutenak, baldin eta haiek jaraunspen ondasuntzaren balio egiaztatuaren ehuneko 10 gainditzen ez badute.

e) Komisarioak testamentu ahalordea erabiltzetik datozen egintzak; berdin da zein itxura hartzen duten.

f) Jaraunspen baten oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunak, jaraunspenaren kausatzailea bizirik dagoenean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. idatz zatiko lehen tartekian araututakoak.

Oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunetan, uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da, izendatzailea hil ondoren ere, ezertan eragotzi gabe oinordekoei legokiekeen zerga ordainketa.

Oinordetza eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea bakarrik hartuko da oinordetza titulutzat honako kasuetan: eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunak aipatutakoetan, aurreko b) letrak zehaztutakoetan, alegia. Bestelakoetan "inter vivos" eta doako negozio juridikotzat hartuko da.

7. artikulua.- Dohaineko eta "inter vivos" negozio juridikoak.

1. (5) Dohaintzaz gain, honako hauek hartuko dira, besteak beste, zerga honen ondoretarako dohaineko eta "inter vivos" negozio juridikotzat.
 - a) Zorra osorik edo zati batean barkatzea, eskuzabaltasunez.
 - b) Pertsona zehatz baten alde, eskubideei uko egitea.
 - c) Beste baten zorraren kontraprestaziorik gabeko kitapena bereganatzea, Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.
 - d) Beste aldearen alde tartekaritza edo judizioan amore eman edo atzera egitea, eskuzabal jokatzeko asmoz; eta asmo berarekin egindako uko, atzera egite edo amore ematetik datorren transakzioa.
 - e) Bizitza aseguruaren kontratua, aseguratuak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru kontratua, kontratugilea ez den aseguratua hilez gero, kasu batean eta bestean onuraduna kontratugilea ez bada.
2. (5) Foru Dekretu honen 5. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen diren doako eta "inter vivos" negozio juridikoen artean ez dira inola ere likidatuko Foru Dekretu honen aurreko 6. artikuluan ezarritakoaren arabera oinordetza titulu gisa zehazten diren negozio juridikoak edo egintzak.

Kontratu edo egintza horiek likidatzeko, Foru Dekretu honen 5. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen diren jaraunspen, legatu edo bestelako oinordetza tituluen bidez eskualdatutako ondasun eta eskubideak eskuratzearen ziozko ondare irabazietarako ezarritako arauak beteko dira.

8. artikulua.- Istripu aseguruaren lotura kasuak.

Istripu aseguruaren onuradunak kopuruak jasotzea Foru Dekretu honen 5. artikuluen 1. idatz zatiko c) letrako zerga egitatean sartuta egongo da, kopuruak jasotze horren kausa pertsona aseguratua hiltzea bada.

9. artikulua.- Aldizkako prestazioak.

1. Foru Dekretu honetako 5. artikuluen 1. idatz zatiko c) letran, 6. artikuluen c) eta d) letretan eta 7. artikuluen e) letran aipatuta dauden kopuruak jasotzea Zergari loturik egongo da, bai behin bakarrik jasotzen badira bai aldizkako, biziarteko edo aldi baterako prestazio gisa jasotzen badira. artikuluen e) letran aipatuta dauden kopuruak jasotzea Zergari loturik egongo da, bai behin bakarrik jasotzen badira bai aldizkako, biziarteko edo aldi baterako prestazio gisa jasotzen badira.

2. Aldizkako, biziarteko edo aldi baterako prestazioak jasotzea Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluan -Zergaren sortzapenari buruzkoa- xedaturikoaren arabera arautuko da.

3. Aurreko idatz zatiko kasuetan, Administrazioak, bertako perituen irizpenaren bitartez, aktuarioarengana jo ahalko du beronek pentsioaren egungo balioa kalkula dezan. Horrela, zerga oinarria zehaztu ahalko du.

10. artikulua.- Zerga egitatearen legezko eraginkortasunik eza.

Kontratua alde kontratugileen elkarren arteko adostasunaz ondorerik gabe geratzen bada, ordaindutako kuotak ez dira itzuliko, eta zerga ordaindu behar duen beste egintza bat balitz bezala hartuko da.

Elkarren arteko adostasun gisa hartuko dira baita ere adiskidetze egintzako abenikoa, demandan amore emate erabat eta demandatuaren aitortza judiziala, kontratuak eraginkortasunik ez izatearen arrazoi erabakigarrien ezagutza duela esan nahi duena.

11. artikulua.- (4)

III. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK

12. artikulua.- Zergadunak.

1. Honako hauek zergadunak dira, eta Zerga ordaindu beharko dute:

- a) "Mortis causa" eskuraketetan, kausaduna.
- b) Dohaintzetan eta gainerako "inter vivos" dohaineko eskualdaketetan, dohaintza hartzailea edo eskuratzaila. Horrelakotzat hartuko da bizitza aseguruaren onuraduna, aseguratuak bizirik iraunez gero; edo banakako aseguruaren onuraduna, kontratugilea ez den pertsona aseguratu hilez gero.
- c) Aseguruaren heriotza kasurako bizitza aseguruaren kasuetan eta Foru Arau honen 8. artikulukoetan, onuraduna.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatu ahalko da, aldeek ezarritako hizpaketak edo testamentugileak agindutako xedapenak edozein direlarik ere.

3. Legatua ematea Zergatik aske izateko edo Zerga jaraunspenaren pentzutan ordaintzeko agintzen duen testamentu xedapenak ez dio zerga ordaindu behar duen pertsonari inolako aldaketarik ekarriko.

IV. KAPITULUA ZERGA OINARRIA

1. ATALA
"MORTIS CAUSA" ESKURAKETEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

13. artikulua.- Arau orokorra.

Heriotzaren ondoriozko eskualdatzeetan, kausadun bakoitzaren jaraunspen ondasuntzako banakako partaidetzaren balio garbia izango da Zergaren zerga oinarria. Balio garbi hori eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioari kendu ahal diren karga, zor edo gastuak kentzetik ateratzen dena izango da.

14. artikulua.- Banakako partaidetzaren balio garbia zehaztea.

1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetzaren balio garbia finkatzeko, honako hauek kenduko dira ondasun edo eskubideen baliotik:

- a) Haien gaineko kargena, baldin eta karga horiek kendu ahal badira.
- b) Kendu ahal izateko eskatutako baldintzak betetzen dituzten zorrena.
- c) Kendu ahal diren gastuen zenbatekoa.
- d) Eskuratzean zerga onuraren bat duten ondasun edo eskubideena, onurarentzat ezartzen den proportzioan.

2. Testamentugileak kargak ukitutako ondasunak edo eskuratzean zerga onura duten ondasunak pertsona zehatz bati eraxiki badizkio edo, testamentugileak xedatuta, zorra ordaintzea kausadunetarik baten kontura gelditzen bada, kenkariak bertan sartuta dagoen pertsona edo kausaduna ukituko du.

15. artikulua.- Hil aurretiko urtean kausatzailearenak izateagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan, uste izango da jaraunspen ondasuntzaren zati direla hil baino urtebete lehenago oinordetzaren kausatzailearenak izan diren mota orotako ondasunak, baldin eta sinesgarriri frogatzen ez bada ondasun horiek hark eskualdatu zituela eta ondasun horiek jaraunspen, legatu hartzailea, hirugarren mailaren barruko ahaidea, izatezko bikotea (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteak badira) edo beraien ezkontidea edo kausatzailearena ez den pertsona baten eskutan daudela. Presuntzio hori indargabeturik geldituko da behar bezala frogatzen bada ondasuntzan sartuta ageri direla, balio berarekin, dirua edo desagertutako ondasunen lekuan subrogatutako beste ondasun batzuk.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, ondasunak kausatzailearenak izan zirela uste izango da, baldin eta haren izenean erregistratuta ageri baziren gordailuetan, kontu korranteetan edo aurrezki kontuetan, bermedun maileguetan edo antzeko beste kontratu batzuetan edo zerga banaketetan, katastroetan, Zerga Erregistroetan, Jabetzaren Erregistroetan edo publikoak diren beste erregistro batzuetan.

Subrogatutako ondasunak edo dirua dagoela frogatzen ez bada ere, interesdunek horiek benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. Presuntzio honen babesean egindako batuketak kausadun guztiak ukituko ditu jaraunsleak diren proportzio berean, baldin eta sinesgarriro akreditatzen ez bada ondasunak goragoko 1. idatz zatian adierazitako pertsonaren bati eskualdatu zaizkiola. Bestela, pertsona hori bakarrik ukituko du, eta zerga ondoreetarako jaraunsletasuna edo legatu hartzailetasuna bereganatuko du, ordurako bereganaturik ez badu behintzat.

16. artikulua.- Hil aurretiko hiru urteetan kausatzaileak gozamenerako eskuratzeagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Uste izango da jaraunspen ondasuntzaren zati direla ondasun eta eskubideak, baldin eta kausatzaileak hil aurretiko hiru urteetan gozamenerako kostu bidez eskuratu baditu eta jaraunsle, legatu hartzaile, hirugarren mailaren barruko ahaide, izatezko bikote (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteak badira) edo beraien ezkontide edo kausatzailearen ezkontide batek jabetza soilean eskuratu baditu.

Presuntzio hori indargabeturik geldituko da behar bezala frogatzen bada jabetza soilaren eskuratzaileak eskualdatzaileari dirua ordaindu edo balio bereko ondasunak edo eskubideak eman zizkiola, haiek eskuratzeko nahiko direnak.

Subrogatutako ondasunak edo dirua dagoela frogatzen ez bada ere, interesdunek horiek kostu bidez benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. (2) Presuntzio honen babesean egindako batuketak jabetza soilaren eskuratzaileari bakarrik egingo dio kalte. Ondasun edo eskubidearen jabari osoa "mortis causa" eskuratzeagatik ordaindu beharko du zerga. Zerga ordainketa horren bidez, jabari osoa eskuratzeagatik egoki zekioketena baztertuko da.

17. artikulua.- Kausatzaileak bere jabetza soila hil aurretiko bost urteetan eskualdatzeagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Ondasun eta eskubideak jaraunspen ondasuntzaren zati direla ulertuko da, baldin eta kausatzaileak hil aurretiko lau urteetan eskualdatu baditu eta beraien edo eskuratzailearen beste ondasun edo eskubide batzuen edo beste edozein biziarteko eskubideren gozamina beretzat gorde badu, horrelako eragiketak legez egiten dituen erakunde batekin egindako biziarteko errentaren aseguruak direnean izan ezik.

Presuntzio hori indargabeturik geratuko da behar bezala frogatzen bada jaraunspen ondarean badagoela jabetza soila eskualdatzeagatik jasotako dirurik edo balio bereko bestelako ondasunik.

Subrogatutako ondasunak edo dirua dagoela frogatzen ez bada ere, interesdunek horiek benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. (2) Presuntzio honen babesean egindako batuketak jabetza soilaren eskuratzaileari bakarrik egingo dio kalte; eskuratzaile hori legatuaren hartzailetzat hartuko da jaraunslea ez bada, eta ondasun edo eskubidearen jabari osoa "mortis causa" eskuratzeagatik ordaindu beharko du zerga.

Zerga ordainketa horren bidez, jabari osoa eskuratzeagatik egoki zekioketena baztertuko da.

18. artikulua.- Baloreak edo efektuak endosatzeagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Gordailatutako baloreak eta efektuak jaraunspen ondasuntzaren zati direla ulertuko da, baldin eta beraien gordekinak endosatu badira eta endosatzailea hil baino lehen kendu ez bada edo gordailuzainaren liburuetan endosuaren berririk eman ez bada; eta endosatutako balio izendunak, transferentzia erakunde jaulkitzailearen liburuetan kausatzailea hil aurretik agerrarazi ez bada.

Presuntzio hori indargabeturik geldituko da baldin eta behar bezala frogatu bada eskualdatutako ondasun eta efektuen prezioa edo balioaren baliokidetasuna saltzailearen edo lagatzailearen ondarrera sartu dela eta haren jaraunspenaren inbentarioan ageri dela (berau kontutan hartu behar da Zerga likidatzeko) edo baloreak edo efektuak kentzea edo endosuaren berririk ematea ezin izan dela kausatzailea hil aurretik egiaztatu beronekin eta endosu hartzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Hala ere, ondasunak batu egin daitezke aurreko 15., 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren babesean.

2. Artikulu honen arabera egindako batuketak baloreen endosu hartzailea bakarrik ukituko du; berau legatu hartzailezat hartuko da jaraunslea ez bada.

19. artikulua.- (2) Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga batuketatik eta kenkaritik baztertzea.

Ezin izango dira Foru Dekretu honen 15-18 artikuluetan aipatuta dauden batuketak kontutan hartu, baldin eta ondasunak kostu bidez eskualdatzeagatik Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz honako kopurua ordaindu bada: presuntzioak ukitutako legatu hartzaileari edo jaraunseari Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergan dagokion benetako batezbesteko tasa eskuratzeko denboran egiaztatutako balioari aplikatzen den kopurua baino kopuru altuagoa. Era berean, batuketa horiek ez dira kontutan hartuko likidazioan balio hori sartu bada. Benetako batez besteko karga tasa Zergari buruzko Foru Arauaren 25. artikuluan ezarritako eran kalkulatu da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz ordaindutako kopurua txikiagoa bada, batuketa egin ahal izango da. Baina subjektu pasiboak eskubidea izango du zerga horrengatik asebetetakoaren kenkaria edukitzeko, Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa egiterakoan.

19 bis artikulua. (5) Epeen zenbaketa, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunetan.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunei dagokienez, Foru Dekretu honen 15-18 artikuluetan jasotako epeak zenbatzeko erreferentziatzat hartuko da eskualdaketa egiten den unea, betiere artikulua horretan jasotako ezarpenak aplikatze aldera.

20. artikulua.- Zatitu ezin diren ondasunetan kausatzaileari eratziki dakioken proportzioa.

Jaraunspen banatu gabeetan, ondasun erkidegoetan eta nortasun juridikorik ez duten eta ekonomi batasuna edo banatutako ondarea osatzen duten gainerako erakundeetan sartuta dauden ondasunetan kausatzaileari eratziki ahal zaion partaidetza jaraunspen ondasuntzari gehituko zaio aplikatu ahal diren arauetatik eta interesdunen arteko

itunetik datorren proportzioan eta, Administrazioak itun horien berri frogaturik ez badauka, interesdunen kopuruaren proportzioan.

21. artikulua.- Kargak kentzea.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan, betiereko kargak, aldi baterakoak edo luditutuan ahal direnak bakarrik kendu ahalko dira, baldin eta ondasunen gainean zuzenean ezarrita agertzen badira eta haien kapitala edo balioa benetan urritzen badute, hala nola, zentsuak eta pentsioak. Ez dira multzo horren barruan sartuko eskuratzailerari obligazio pertsonala ekartzen dioten kargak ez eskualdatutakoaren balioa urriarazten ez dutenak (esate baterako, hipotekak eta bahiak). Hala ere, kontutan hartuko da bermatzen duten zorrak kendu ahal izango direla horretarako ezarritako betekizunak betez gero.

2. Aurkezten diren agirietan ez bada berariaz azaltzen pentsio, karga kengarrien iraupena, mugagabetzat joko da.

3. Zentsuko balioztat hartuko da, kargak kentzeari begira, legeria zibilaren arauen arabera zentsua ludituzeko eman behar den kapitala.

4. Hala, pentsioen balioa lortzeko, pentsioak diruaren legezko korrituan kapitalizatuko dira eta emaitzako kapitaletik hartuko da gozamenak baloratzeko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa bada. Pentsioduna hildakoan iraungitzen ez diren aldi baterako pentsioak baloratzeko, ez da eraentzailea izango gozamenak baloratzeko finkatutako muga. Horrela lortutako balioa zuzentzeko, interesdunak peritutasazio kontrajarria gauzatzea eskatu ahalko du.

Pentsioa iraungitakoan, ondasunaren eskuratzailerak pentsioa eratu zen unean indarrean zegoen tarifaren arabera kendutako kapitalari dagokion Zerga ordaindu beharko du.

2. ATALA

“INTER VIVOS” DOHAINEKO ESKUALDAKETEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

22. artikulua.- Kargak kentzea.

1. Dohaintzan edo dohaintzarekin pareka daitekeen beste edozein inter vivos eta dohaineko negozio juridikoren bitartez eskuratutako ondasun edo eskubideen balio garbia zehazteko, kargak kendu ahalko dira, baldin eta Zergari buruzko Foru Arauaren 19. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

2. Kargak kentzeko orduan, Foru Dekretu honen 21. artikuluko 2., 3., eta 4. idatz zatietan bildutako arauak aplikatu ahalko dira.

23. artikulua.- Ezkontza sozietateak edo izatezko bikoteak ondasun komunak dohaintzan ematea.

1. Irabazpidezko ondasunak bi ezkontideek batera dohaintzan ematen dituztenean, eta mota horretako ondasunen dohaintza presuntzioa aplikatzen den kasuetan, kontuan hartuko da, Zerga likidatzeari begira, bi eskualdatze desberdin daudela. Hori dela eta, eskualdatze bakoitzaren oinarria eta karga tasa ezarriko da, dohaintzan emandako ondasunen gutzizko balioaren erdia aintzat hartuta.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikagarria izango da, halaber, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan.

3. ATALA **ASEGURUEN ARLOKO ARAU BEREZIAK**

24. artikulua.- Ezkontza sozietatearen edo izatezko bikotearen ondasun komunen kontura kontratatutako aseguruak.

1. Asegurua ezkontide batek irabazpidezko sozietatearen pentzuan kontratatu bada eta onuraduna bizirik dirauen ezkontidea bada, jasotako kopuruaren erdia sartuko da zerga oinarrian.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikagarria izango da, halaber, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan, baldin eta izatezko bikotea osatzen duten kideek ezarritako ondasunen inguruko araubide ekonomikoa aurreko idatz zatian azaldutako bada.

3. [\(5\)](#) Era berean, artikulua honetako aurreko idatz zatietan ezarritakoa aplikatuko da: ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa bada -ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dago- eta aseguru hildako ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak irabazitako ondasunen edo harengandik datozen ondasunen kargura kontratatu bada, betiere, azken kasu horretan, ondasunen foru komunikazioa finkatu egin bada, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 132. artikuluan ezarritakoarekin bat.

4. ATALA **BALIOEN EGIAZTAPENA**

25. artikulua.- Arau orokorrak.

1. [\(2\)](#) Subjektu pasiboek nahitaez jaso beharko dute ondasunen eta eskubideen benetako balioa beren autolikidazioan. Hori egiten ez badute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

2. Eskualdatutako ondasunen eta eskubideen benetako balioa egiaztatzeko eskubidea izango du Administrazioak; horretarako, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan eta Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluan ezarritako bideak baliatuko ditu.

3. Aitortutako balioa nagusituko zaio beti egiaztatutako balioari, baldin eta egiaztatutakoa handiagoa bada, ondorengo kasuetan izan ezik:

a) Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko c) letran aipatzen diren eskuraketetan.

b) Eskualdatze data 1992ko urtarrilaren 1a baino aurreragokoa duten eskuraketetan.

26. artikulua.- Peritu tasazio kontrajarria: prozedura.

1. Bulego Likidatzaileak Arabako Foru Aldundiko dagokien zerbitzu teknikoei ondasun eta eskubideen zerrenda bidaliko die, ondasun eta eskubide horien izaerarako egokia den titulua duten langileek dagokien prezio orria egin dezaten, baldin eta Administrazioako peritu batek egindako arrazoitutako balorazioa espedientean ageri ez bada jada. Izan ere, baliteke, balioa egiaztatzeko, Zergei buruzko Foru Arauan ezarrita dagoen eta Administrazioako perituen irizpenaren desberdina den bide bat erabili izana. Prezio orrian azaldu behar dituzte, egindako balorazioaren emaitza ezezik, balorazioa egiteko kontutan hartutako oinarriak ere.

2. Bulego Likidatzaileak Administrazioako perituaren balorazioa edo, Administrazioak balioak egiaztatzeko bide bezala Administrazioako perituen irizpenekoa erabili duelako, espedientean ageri dena jasota, balorazioa interesdunei jakinaraziko zaie. Horiek, bat ez etorritz gero, peritu tasazio kontrajarria proposatzeko aukera izango dute soilik, eta hilabete bateko epea emango zaie beraiek izendatzen duten perituaren izena eta egoera azaltzeko.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean interesdunek periturik izendatzen ez badute, beren eskubideari uko egiten diotela eta Administrazioako perituak adierazitako balioa onartzen dutela ulertuko da, eta, hala, espedientea bukatutzat joko da.

3. Zergadunak izendatzen duen perituak ondasunak tasatu ahal izateko titulu egokia eduki beharko du.

4. Zergadunak izendatzen duen perituak, izendatu zuten egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, ondasunen prezio orriak, behar bezala arrazoituta, aurkeztu beharko ditu Bulego Likidatzailean, goragoko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera.

5. Perituen artean adostasunik ez badago ondasunen edo eskubideen balioaren inguruan, eta Administrazioako perituak egindako tasazioaren eta interesdunaren perituak egindakoaren artean dagoen aldea 100eko 10ekoa baino txikiagoa edo 120.202,42 euro baino gutxiagokoa bada, interesdunaren perituak egindako tasazioa hartuko da likidazio oinarritzat.

Emaitza muga horietatik pasatzen bada, hirugarren peritu bat izendatu beharko da. Horretarako, urte bakoitzeko urtarrilean, hirugarren peritu gisa jarduteko prest dauden elkargokideen edo elkartekideen zerrenda bidaltzeko eskatuko die Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru diputatuak legez aitortutako elkargo, elkarte edo korporazio profesionali. Zozketa bidez zerrenda bakoitzeko bat aukeratu ondoren, horren arabera egingo dira izendapenak, ordena korrelatiboari jarraiki, betiere baloratu beharreko ondasunak eta eskubideak kontuan hartuta; salbuespena izango da izendapena onartzeari modu arrazoituan uko egiten zaion kasua.

Baloratu beharreko ondasunen edo eskubideen ezaugarriak direla eta elkargo, elkarte edo korporazio profesional eskudunik edo hirugarren peritu gisa jarduteko profesionalik ez badago, dagokion erregistro ofizialean erregistraturik dagoen tasazio sozietate bat izendatuko da.

Izendatutako peritu edo sozietateari izendapenaren berri emango zaio, eta baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda eta aurreko perituen prezio orrien kopia emango zaio. Hala, hilabeteko epean, balorazioaren bat baieztatu edo beste balorazio bat

egin beharko du, eta balorazio berri horretan, peritatutako ondasun bakoitzaren balioa eta baloraziorako kontuan hartutako oinarriak jasoko ditu.

Hirugarren perituaren balorazioa behin betikoa izango da, eta dagokion likidazioaren oinarritzat hartuko da, aitortutako balioaren eta zerga Administrazioak hasiera batean egiaztatu duen balioaren mugekin. Aipatutako muga horiek ez dira kontuan hartuko 13.2 artikuluan eta Zergari buruzko Foru Arauko Xedapen Gehigarrian bildutako kasuetan.

6. Hirugarren perituak Foru Aldundian balorazioa aurkeztu eta gero, interesdunari horren berri emango zaio.

7. Peritu tasazio kontrajarrian lortutako emaitzak ikusi ondoren, Bulego Likidatzaileak hirugarren perituak emandako baloraziora egokituko du likidazioa, eta dagozkion berandutze interesak ere erantsiko ditu.

8. Administrazioako perituak indarreko legeriaren arabera legez dagozkion ordainsariak jasoko ditu. Subjektu pasiboaren perituaren ordainsariak subjektu pasiboak berak ordainduko ditu. Hirugarren perituak egindako tasazioaren eta aitortutako balioaren arteko aldea 100eko 20koa baino handiagoa bada, peritazioaren gastu guztiak subjektu pasiboak ordainduko ditu, eta, bestela, Administrazioaren kontura izango dira.

V. KAPITULUA SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

1. ATALA SORTZAPENA

27. artikulua.- [\(5\)](#) Sortzapena.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan eta bizitza aseguruetan, kausatzailea edo aseguratuak hiltzen den egunean sortuko da zerga, edo, hura falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibilaren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen kasuan eta Zergaren Foru Arau honen 7.1.a) artikuluan uko egiteko definitzen diren oinordetza itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean.

2. Dohaintzaren edo beste kostu gabeko eta "inter vivos" negozio juridiko batzuen ondoriozko eskuraketetan, egintza edo kontratua sorrarazten edo egiten den egunean sortuko da zerga. Kontratugileak edo aseguratuak bizirik iraunez gero biziaren gaineko aseguru baten onuradunak kopururik eskuratzen badu, onuradunak jaso beharreko lehenengo kopurua edo bakarra eskatu ahal duen egunean hartuko da sortutzat egintza edo kontratua.

Zergaren Foru Arauaren 7.1.a) artikuluan ezarritako salbuespenetan eta 7.1.b) artikuluko bigarren leerroaldean ezarritakoaren ondorioz "inter vivos" negozio juridikotzat jotzen diren

ondasun eta eskubide eskuraketetan, eskualdatzea gertatzen den egunean sortuko da zerga.

3. Ondasunen eskuraketaren eraginkortasuna baldintza, termino, fideikomiso edo beste mugaren baten zioz etenda dagoenean, eskuraketa muga desagertzen den egunean gauzatutzat joko da, eta egun hori hartuko da aintzat ondasunen balioa eta karga tasak zehazteko.

4. Gozamen ahaldunaren edo testamendu ahalordearen bidez gauzatzen diren jaraunspenetan, zerga hala sortuko da:

a) Gozamen ahaldunak edo testamendu ahalordeak ukitzen ez dituen ondasun eta eskubideen eskuraketetan, zergaren sortzapenari buruzko arau orokorraren arabera, hau da, artikulua honetan goragoko idatz zatietan azaltzen den arau orokorraren arabera.

b) Gozamen ahaldunak edo testamendu ahalordeak ukitutako ondasun eta eskubideei dagokienez, zerga noiz sortzen den zehazteko, ondoko kasu hauek bereizi behar dira:

1. Ondasun edo eskubideen eskuraketaren kausa gozamendun ahaldunari edo komisarioari eratzikitako xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea baliatu izana bada, (edo haiek esleituta eduki dezaketen beste edozein ahalmen baliatu izana, horrela zerga honen zerga egitatea sortzen bada), zerga sortuko da ahalorde edo ahalmen hori osorik edo zati batean baliatzen den egunean.

2. Gozamen ahaldunak edo testamendu ahalordeak ukitzen dituzten ondasun edo eskubideen eskuraketetan, baldin eta xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea iraungiak badira haiek osorik edo zati batean baliatu aurretik, zerga sortuko da ahalmena edo ahalordea iraungitzea dakarren zirkunstantzia izaten den egunean.

3. Gozamen ahalduna badago, eta testamentu ahalordea egonez gero, ahalordea baliatzen ez den bitartean pertsona jakin batek jaraunspeneko ondasun edo eskubide guztien edo horietako batzuen gozamenerako eskubidea badu, xedatzeko botere edo ahalmena baliatzen ez duen heinean, gozamenerako eskubideari dagokion zerga sortuko da gozamina eratu duena hiltzen den egunean edo, hura falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den egunean, Kode Zibilaren 196. artikulua arabera.

5. Izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza eskubideak, "inter vivos" edo "mortis causa" egintzen bidez, doan xedatzen direnean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 106. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga ez da sortuko izendatzailea hiltzen den egunera arte.

2. ATALA PRESKRIPZIOA

28. artikulua.- Preskripzioa.

1. (5) Administrazioak likidazioaren bitartez zerga zorra zehazteko duen eskubidea eta zergen arloko zehapenak ezartzeko ekimena bost urteren buruan preskribatuko dira.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den epea ondorengo egun hauetatik aurrera hasiko da zenbatzen:

- a) (2) Dohaineko "inter vivos" eskualdatzeen kasuan, dagokion autolikidazioa aurkezteko arauzko epea bukatzen den egunetik aurrera.
- b) (2) "Mortis causa" eskualdatzeen kasuan, dagokion autolikidazioa aurkezteko ezarri den luzapen epe arrunta bukatzen den egunetik aurrera.
- c) Zehapenak ezartzeko ekimenaren kasuan, arau haustea egiten denean.
- d) Atzerriko funtzionarioek zilegitutako eskriturei dagokienez, preskripzio epea Espainiako administrazio bati eskriturak aurkezten zaizkionean hasiko da, Espainiak sinaturiko nazioarteko itun, hitzarmen edo akordioaren batean epe hori zenbatzen hasteko beste moduren bat ezarri ezean.

3. Preskripzio epea eten egingo da Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera.

4. Dohaintzan edo dokumentu pribatu baten barruan dauden beste edozein dohaineko eta "inter vivos" negozio juridikoren bitartez gertatutako eskuraketetan, preskripzioaren ondoretarako, horien data Bulego Likidatzailean aurkeztu zireneko data dela ulertuko da, baldin eta lehenago erregistro publiko batean sartu edo inskribatu edo funtzionario publiko bati eman ez bazaizkio; hori gertatuz gero, sartze, inskribatze edo aurkezte data hartuko da kontuan, Kode Zibileko 1.227. artikuluari jarraiki.

5. Jaraunspenari uko egin eta berau zapuztetik datozen eskuraketak zergapetzen dituen Zerga likidatzeko preskripzio epea horiek gertatzen diren egunean hasiko da.

VI. KAPITULUA ARAU BEREZIAK

1. ATALA GOZAMENA, ERABILERA ETA BIZTANKETA

29. artikulua.- (2) Gozamenaren, erabileraren eta bizileku arau bereziak.

1. (3) Gozamenerako, erabiltzeko eta bizileku eskubideak eskuratzean, eskubide horien balioaren gaineko zerga ordainduko da eta, bidezkoa bada, Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan xedatutakoaren arabera eskuratzailerari dagozkion murrizketak aplikatuko dira.

2. (3) Jabetza soilaren eskuratzailerak Zergaren autolikidazioa egin behar du haren balioa kontuan hartuta (bidezkoa bada, Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan xedatutakoaren arabera dagozkion murrizketak aplikatuko ditu).

Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, gozamena iraungitakoan jabe soilak gozamena iraungitzearen ziozko kontzeptua ordaindu behar du eskuraketa egin zueneko tituluaren arabera, jabetza soila eskuratzean zerga ordaindu ez den ehunekoaren

gainean; ehuneko hori ondasunek jabaria sendotzean duten balioari aplikatuko zaio, inolako murrizketarik aplikatu gabe eta orduan indarrean dagoen tarifaren arabera.

Aplikatu beharreko tarifa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira lehen jabe soilaren ahaidetasun eta ezintasun inguruabarrak gozamina iraungitzean.

Gozamina iraungitzean ez bada ziurtatzen lehenengo jabe soilaren titulua, ezezagunen arteko jaraunspena izan dela pentsatuko da, zerga ondorioetarako.

3. (3) Jabe soilak bere eskubidea eskualdatzen badu, eskuratzailerak eskuraketaren gaineko karga jasango du; kargaren zenbatekoa honela kalkulatu behar da: jabetza soilaren ehunekoa (gozamina iraungitakoan kalkulatu) aplikatu behar zaio ondasunek eskualdaketa unean izan duten balioari, horren emaitzako kopuruari tituluari dagokion karga tasa aplikatu behar zaio eta gero, bidezkoa bada, horren emaitzari Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan xedatutakoaren arabera eskuratzailerari dagozkion murrizketak aplikatu behar zaizkio.

Aurrekoa gorabehera, jabe berriak jabari osoa eskuratzen badu, aurreko 2. idatz zatian xedatutakoaren arabera lehen jabe soilak ordainduko beharko zuen zerga ordaindu behar du.

4. Lehenengo jabe soilaren edo ondorengo jabe soilen eskuetako jabaria gozamendunaren heriotza edo ezarritako epea betetzea ez den arrazoiengatik sendotzen bada, eskuratzailerak hau bakarrik ordaindu beharko du: jabaria zatibanatzeagatik egin gabe dauden likidazioen artetik likidaziorik handiena, eta gozamenaren iraungitzea arautzen duen negozio juridikoari dagokiona.

Jabaria gozamendunarengan sendotzen bada, gozamendunak ordaindu beharko du jabetza soilaren eskuratzeara arautzen duen negozio juridikoari dagokion likidazioa.

Jabaria gozamenerako eta jabetza soilerako eskubideak aldi berean eskuratzen dituen hirugarrenengo batengan sendotzen bada, eskuraketa horri dagozkion likidazioak bakarrik igorriko dira.

5. Elkarren ondorengo gozamenetan jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, ehunekorik handieneko gozamina hartuko da kontuan, eta, gozamen hori iraungitzean, jabe soilak jabetza soilak duen balio igoerari dagokiona ordainduko du, eta, horrela, banaka banaka, gainerako gozamenak iraungitzean. Arau bera aplikatuko da aldi berean bi ezkontideen alde ezarritako gozamenerako ere, baina azkena hiltzen denean bakarrik finkatuko da jabetza likidazioz.

6. Onartutako gozamen bati uko egiten bazaio, nahiz eta uko garbi eta sinplea izan, zerga ondoretarako, gozamendunak jabe soilari gozamina dohaintzan eman balio bezala hartuko da kontuan.

7. Gozamina gozamendunaren bizitza ez den baldintza suntsiarazlearekin eratzen bada, biziarteko gozamenetarako ezarritako arauak kontuan hartuko dira likidazioa egiteko. Hala ere, baldintza beteta, beste likidazio bat egingo da, aldi baterako gozamenetarako ezarritako arauen arabera, eta bidezko zuzenketak egingo dira Arabako Foru Aldundiaren edo interesdunaren alde.

8. Erabiltzeko eta biztantzeko eskubideak iraungitzean, gozamendunari Zerga eskatuko zaio, gozamenik badago, gozamenaren balioa igotzeari dagokion zatia, eta, gozamenik ez badago, jabe soilari egingo zaio eskubide horiek iraungitzeari dagokion likidazioa. Gozamina erabilera eta bizileku eskubideak baino lehenago iraungiz gero, jabe soilak dagokion likidazioa ordainduko du, gozamen eskubide hori iraungitzeak dakarren finkatze partzialarengatik, iraungitze horri jarraiki jabetza soilaren balioak duen igoyerari dagokiona.

9. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu gabe, gozamina pertsona juridiko batentzat eratu bada, aipatutako Foru Arauko 13.4.c) artikuluko araua aplikatuko da pertsona fisiko bati eraxkitako jabetza soilaren balioa zehazteko, baina gozamenerako ezin izango da inoiz konputatu ondasunei eraxkitako balio osoaren 100eko 60koa baino handiago den baliorik. Ehuneko hori bera hartuko da kontuan gozamenaren iraupena zehaztugabea denean.

30. artikulua.- Gozamen eta erabiltze eskubidearekin parekatu daitezkeen instituzioak.

1. Baliteke, kausatzailearen xedapenen edo oinordetza araupeturik duten arau zibilak aplikatzearen ondorioz, jaraunspen bateko ondasunak osorik edo aldez aldi baterako edo bizi osorako lupertzeko eskubidea pertsona bati eraxkitzea. Horrelakoetan, zerga ondoreetarako ulertuko da gozamen edo erabilera eskubide bat badagoela, eta eskubidea baloratuko da, bere izena edozein delarik ere, aldi baterako edo bizi osorako erabilera eskubideetarako edo gozamenetarako ezarritako arauen arabera.

(2) Hala ere, eskuratzailleak ondasunak bere esku izateko eskubidea badu, jabari osoarengatik ordainduko du zerga. Hala ere, jabetza soilari dagokion zergaren zatia itzuli ahalko zaio, bidezkoa dena, baldin eta ondasun horiek testamentugileak edo aplikatzekoa den arautegiak adierazitako pertsonari eskualdatu zaizkiola frogatzen bada.

2. (5) Zergaren Foru Arauaren edo Foru Dekretu honen arabera araubide berezia duten erakundeei ez zaie aplikatuko aurreko zenbakian xedatutakoa. Halaxe gertatzen da, hain zuzen ere, gozamen ahalduaren edo testamendu ahalordearen zioz gauzatzen diren jaurespenen komisarioekin edo gozamendun ahalduekin.

Ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu ahalordeetatik datozen gozamen eskubideak eraenduko dira horietarako Zergaren Foru Arauan eta Foru Dekretu honetan berariaz ezarritako arauen bidez.

2. ATALA UKO EGITEA

31. artikulua. (2) (5) Bizirik dagoen ezkontideak uko egitea.

Irabazpidezko sozietatearen edo ondasunen foru komunikazioaren araubidearen emaitzako ezkontza sozietatearen ondore eta ondorioetarako bizirik dirauen ezkontidearen uko egiteak uko egin dien ondasunak hildakoak utzitako ondasuntzaren zati izatera pasatzea eragin dezan, zerga likidatzeari begira, beharrezkoa izango da

eskritura publiko bidez ukatzea, kausatzailea hil baino lehen, Zergaren Foru Arauaren 34. artikuluko betebeharrak betetzeaz gain. Baldintza horiek betetzen ez badira, zerga kobratuko zaie ukoaren onuradunei, uko egileak haien alde dohaintza egiteagatik.

Idatz zati honetan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

3. ATALA DOHAINZAK PILATZEA

32. artikulua.- Dohaintzak euren artean pilatzea.

1. (2) Dohaintzak eta bestelako dohaineko eskualdaketak eskualdaketa bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko, baldin eta dohaintza emaile berak dohaintza hartzaile berari hiru urteko epean ematen badizkio. Hori dela-eta, zerga kuota zerga oinarri guztien batuketaren arabera lortuko da, eta aipatutako epea dohaintza edo eskualdaketa bakoitzaren datan hasiko da. Pilatutako dohaintzak gauzatu aurretik ordaindutako kuotak pilaketaren ondorioz egiten den zerga ordainketatik kentzeko aukera egongo da.

2. Aurreko idatz zatiko ondoretarako, eguneko dohaintzaren dataren aurreko hiru urteetan dohaintzan emandako ondasunen edo eskubideen balio batuz egingo da pilaketa.

3. Pilatutako dohaintzak direla eta ordaindutako kuotetatik kendu beharreko zenbatekoa lortzeko, dohaintzan emandako ondasun eta eskubideentzako lehendik egiaztatutako balioari pilaketaren ondoriozko likidazioari dagokion benetako batez besteko karga tasa aplikatuko zaio. Benetako batez besteko karga tasa Zergari buruzko Foru Arauaren 25. artikuluko c) letran xedaturikoaren arabera kalkulatu da. (2)

Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria aplikatu ahal izateko, pilatzen diren dohaintzekin edo aurreko dohaintzekin Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordainduta egon beharko da.

4. Pilatutako dohaintzak hasiera batean dohaintza horientzat egiaztatutako balioaren arabera kalkulatu dira, pilaketaren unean balioa alda zitekeen arren.

33. artikulua.- (5) Dohaintza-emailearen jaraunspenari metatzea dohaintzak eta gainerako irabazizko eskualdatzeak.

1. (2) (5) Zergaren Foru Arauaren 36. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako kostu gabeko eskualdaketak eta dohaintza emaileak dohaintza hartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza eskualdaketak, salbu eta Foru Arau honetan salbuetsizat jotzen diren ondasunen «mortis causa» eskuraketak badira, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga kuota zehazteko orduan, betiere baldin eta horien arteko epea ez bada hiru urte baino luzeagoa. Zerga kuota zerga oinarri guztiak batuz lortuko da. Metatutako eskuraketengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira ingresatutakotik, eta, hala dagokionean, ingresatutako osoa edo zati bat itzuli beharko da.

2. (5) Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, metaketa egiteko batu egin behar da azken eskualdaketari dagokion sortzapenaren egunaren aurreko hiru urteetan eskuratutako ondasun edo eskubideen balioa.

Zergaren Foru Arauaren 36. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako dohaintzak edo kostu gabeko eskualdaketak ezkontide biek ezkontza sozietatearen ondasun komunak erabiliz egin badituzte, metaketak bakarrik eragingo dio kausatzaileari egotzi ahal zaion balioaren parte proportzionalari, eta kengarria izango da dohaintzari edo parekagarria den kostu gabeko eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia.

Metatutako eskuraketak egin ziren egunean egiaztatu zitzairen balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Aurreko idatz zatietan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

3. Pilatutako dohaintzak direla eta lehendik ordaindutako kuotetatik kendu beharreko zenbatekoa lortzeko, dohaintzan emandako ondasun eta eskubideentzako lehendik egiaztatutako balioari benetako batez besteko karga tasa aplikatuko zaio, oinordetzari dagokiona, Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko c) letran xedaturikoaren arabera kalkulaturakoa.

Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria aplikatu ahal izateko, pilatzen diren dohaintzekin edo aurreko dohaintzekin Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordainduta egon beharko da.

4. Pilatutako dohaintzak hasiera batean dohaintza horientzat egiaztatutako balioaren arabera kalkulatu dira, pilaketaren unean balioa alda zitekeen arren.

II. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

34. artikulua.- (2) Autolikidazioaren erregimena. Arau orokorrak.

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa Arabako Foru Aldundiari dagokio. Foru Aldundiak garatuko du eskumen hori, Ogasun Zuzendaritzako zerbitzu egokien bidez.

Aitorpena aurkezteaz batera, subjektu pasiboek egoki zaien zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, eta Arabako Foru Aldundian sartu.

2. Autolikidazioan eskualdatutako ondasunen eta eskubideen balio osoa sartuko da, baita eskuratzeko interesa duten guztien zerranda ere.

Subjektu pasiboek baldintzatutako egintzak edo kontratuak sartu dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte zerga administrazioan, autolikidazio originalarekin eta kopiarekin batera.

Autolikidaziorako hartuko den agiriak bere barruan hartu beharko du zergapetutako ondare gehikuntza osatzen duten ondasun eta eskubideen zerrenda zehaztua, eskualdatzailearen edo eskuratzzailearen identifikazio datuez eta bidezko jakinarazpenak egiteko helbideaz gain. Zerrenda horretan adierazi beharko dira ondasun eta eskubide bakoitzari atxiki dioten benetako balioa, kargak, zorrak eta gastuak, baldin eta horiek kentzea eskatzen bada.

Agiriak aipaturiko datu guztiak ez baditu, agiriarekin batera aurkeztu beharko da aipatu gabeko datuak ageri diren zerrenda bat.

Agiririk egon ezean, aitorten bat aurkeztuko da. Bertan, atal honetan aipatutako datu guztiak adieraziko dira.

3. Foru Dekretuko 37. artikuluan ezarritako epeak igaro badira, eta autolikidazioa aurkeztu ez bada, zerga administrazioak errekerimendua egingo du, hurrengo hamabost egunetan aurkezpena bidera dadin. Hala badagokio, ofizioz beteko ditu datuen arabera zilegi diren likidazioak, eta aplika daitezkeen zigorrak kargatuko ditu.

4. Aurreko 2. idatz zatian idatzitakoa gora behera, ondasunen edo eskubideen zati bati dagokion autolikidazioa onartuko da, Foru Dekretuko 44. artikuluan ezarritako kasuetan.

5. (5) Gozamen ahalduari edo testamendu ahalordeari lotutako jaraunspenetan, jaraunspenaren gozamendun ahalduak edo komisarioak zerga aitortena aurkeztu behar du, kausatzailea zendu dela egiaztatuz. Aitorten horretan, komisarioak edo gozamendun ahalduak ezinbestean bete beharko du Zergaren Foru Arau honen 38 bis artikuluko ezarritakoa.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren jaraunspenetan, gozamenaren eskubideagatiko eta testamendu ahalordeak edo gozamen ahalduak ukitutako ondasunegatiko gozamendun ahalduaz edo komisarioaz bestaldeko zergadunek ezingo dute autolikidaziorik aurkeztu, harik eta testamentu ahalordea edo xedatzeko ahala modu ezeztazinean erabili arte - partzialki zein osorik-, edo hura azkentzeko dauden beste arrazoietakoa bat gertatu arte.

35. artikulua.- (2)

36. artikulua.- Dokumentazio osagarria. (2)

1. (2) Foru Dekretu honetako 37. artikuluan ezarritako epeetan subjektu pasiboek aurkeztu beharreko autolikidazioarekin batera kasu bakoitzean zehaztutako dokumentuak eman beharko dira. Artikulu honetako hurrengo idatz zatietan azaldu da.

2. (2)

3. (2)

4. Heriotzak eragindako eskuraketak direnean, likidazioarekin batera honako dokumentuak aurkeztuko dira: (2)

a) Kausatzailearen heriotza ziurtagiria, Erregistro Zibilak egindakoa; Azken Borondateko Egintzen Erregistroaren Ziurtagiria; eta kausatzailearen eta beronen jaraunspenaren edo/eta legatu hartzaileen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.

- b) Testamentu xedapenen kopia baimendua, horrelako xedapenik egonez gero, eta, bestela, jaraunsleen aitordenaren testigantza.
- c) Kausatzaileak oinordetzan sartutako ondasun higiezinak eskuratzeko hartutako titulua frogatzen duten agiriak. Ondasun eta eskubideen eskritura publikoen fotokopia ekarri behar da, agiri publikoak aurkeztu ezean, bai eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria ere.
- d) Eskualdagai diren ondasunen eta eskubideen artean kontuetako saldo edo titulu kotizaturik ageri bada, Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Finantza Erakundearen aurrezki libreten, kontu korronteen eta eperako ezarpenen ziurtagiriak aurkeztu behar dira, bai eta burtsan kotizatzen duten errenta finko edo aldakorreko titulu gordailuenak ere.
- e) Eskualdagai diren ondasunen eta eskubideen artean burtsan kotizatzen ez duen akzioen bat ageri bada, kausatzailea hil baino lehen onetsitako azken balantzearen fotokopia aurkeztu beharko da, Sozietatearen gaineko Zergaren ondoretarako, bai eta sozietate kapitala zatituta dagoen akzio edo partaidetzen kopuruaren ziurtagiria ere.
- f) Eskualdagai diren gainerako ondasun eta eskubideak frogatzen dituzten agiriak.
- g) Kendu nahi diren azken gaixotasunaren, lurperaketaren eta hileta elizkizunaren gastuak, zorrak eta kargak frogatzen dituzten agiriak.
- h) Eskuratze dataren egiaztatzea, bai eta titulu kopurua eta zenbatekoa ere. Horrez gain, edozein zorpetze motaren jaulkipenaren baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoak, Foru Aldundiak eta hiru lurralde historikoetako Lurraldeko Toki Erakundeek egindakoa.
- i) Hil aurretiko bost urteetan kausatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izanaren ziurtagiria.
- j) Subjektu pasiboa kausatzailearekin berau hil aurretiko bi urteetan bizi izanaren ziurtagiria, dagokion udalak egindakoa.
- k) Kausatzailearekiko ahaidetasun maila ziurtatzen duen dokumentua.

(2)

5. Heriotza kasurako bizitza aseguruaren polizen likidazioa aurkezten bada, zergaren subjektu pasiboek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: (2)

- a) Heriotza ziurtagiria, Erregistro Zibilak egindakoa.
- b) Aseguru etxearen ziurtagiria; bertan zehaztu behar da zenbatekoa den jaso beharreko kopurua eta zein diren onuradunak.
- c) Onuradunen eta kausatzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.
- d) Hil aurretiko bost urteetan kausatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izanaren ziurtagiria.
- e) Aseguratuarekiko ahaidetasun maila ziurtatzen duen dokumentua.

Aseguruaren polizan berariaz eta zehazki aipatuta ez badaude onuradunak hura legezko jaraunsleei bidaltzeagatik, beharrezkoa izango da kausatzailearen testamentu xedapenen kopia baimendua aurkeztea, baldin badago, bai eta Azken Borondateko Egintzen Erregistroaren Ziurtagiria ere. Testamenturik ez badago, jaraunseen adierazpenaren epaile autoaren edo notario aktaren lekukotza jarri ahalko da haren ordeiz.

6. “Inter vivos” dohaintza eta irabazizko bestelako eskurapenetan, zergaren subjektu pasiboek autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko dituzte honako dokumentuak: [\(2\)](#)

- a) Dohaintza emailearen eta dohaintza hartzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.
- b) Ondasun higiezinak eskualdatzen badira, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiriaren fotokopia.
- c) Eskualdagai diren ondasunen eta eskubideen artean burtsan kotizatzen ez duten akzioak badaude, dohaintzaren dataren aurretik onetsitako azken balantzearen fotokopia aurkeztu beharko da, Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako, bai eta sozietate kapitala zatituta dagoen akzio edo partaidetzen kopuruaren ziurtagiria ere.
- d) Eskuratze dataren egiaztagiria, bai eta titulu kopurua eta zenbatekoa ere. Horrez gain, edozein zorpetze motaren jaulkipenen baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoak, Foru Aldundiak eta hiru lurralde historikoetako Lurraldeko Toki Erakundeek egindakoa.
- e) Eskudirutan dirurik dohainik eskualdatuz gero, diru kopuru hori transferitu delako banku egiaztagiriaren kopia aurkeztu beharko da, halaber, edo, hori izan ezean, eskualdaketa egiten den banku taloiaren kopia.
- f) Zerga sortu aurretiko bost urteetan dohaintza hartzailea Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izanaren ziurtagiria, ondasun higiezinak ez diren ondasunen edo eskubideen eskualdaketen kasuan.
- g) Subjektu pasiboa dohaintza emailearekin dohaintza egin aurretiko bi urteetan bizi izanaren ziurtagiria, dagokion udalak egindakoa.
- h) Dohaintza emailearekiko ahaidetasun maila ziurtatzen duen dokumentua.

7. [\(2\)](#) Zergapekoak zerga honengatik exentzioa, murrizketa edo hobaria jasotzeko baldintzak betetzen dituela uste badu, autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko ditu gozatu ahal izateko baldintzak betetzen dituenaren justifikazio dokumentuak.

8. Ez da beharrezkoa izango artikulua honetako 4., 5. eta 6. idatz zatietan aipatzen diren agiriak aurkeztea, baldin eta Foru Aldundiak agiri horiei dagokien informazioa badu.

II. KAPITULUA

1. ATALA AURKEZTEKO EPEA, LUZAPENA ETA ETETEA

37. artikulua.- Aurkezteko epea.

1. [\(2\)](#) [\(5\)](#) Arau orokorrak:

Subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztuko dute. Kasuan kasu, zerga zorra honako epeen barruan sartuko dute:

1.- Dohaintzak eta bestelako kostu gabeko eta "inter vivos" eskualdaketak direnean, autolikidazioa aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, zerga egitatea gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.- Heriotzaren ondoriozko eskuraketen kasuan, bitzta aseguruaren kontratuen onuradunenak barne hartuta, autolikidazioa aurkezteko epea sei hilekoa izango da, kausatzailearen heriotzaren biharamunaren hurrengo egunetik edo heriotzaren adierazpenak irmotasuna hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori bera aplikatuko zaie gozamenaren heriotzaren aurreko gozameneko eskuraketei ere, jabaria zatibanatzea "inter vivos" ekintzen bidez egin bada ere.

Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden ondasun eskuraketetan, ahala baliatzen den egunean edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatzen den egunean hasiko da zenbatzen autolikidazioak, eta, hala badagokio, agiriak aurkezteko epea.

Unean bertan eskualdatzen diren ondasun edo eskubideak dituzten oinordetza tituluak edo euskal zuzenbide zibileko gainerako espezialitateak badira, autolikidazioa aurkezteko epea sei hilabetekoa izango da, zerga egitatea sortu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Arau bereziak:

1. Oinordekotza hil ostean norbait jaiotzearen arabera denean, aurreko ataleko 2. arauan adierazitako sei hileko epea haren jaiotzaren biharamunetik zenbatzen hasiko da, edo hala badagokio, Kode Zibileko 966. artikuluan aipaturiko gertaeraren bat izaten den egunetik zenbatzen hasita.

2. Oinordekotza ez dagoenaren heriotzaren adierazpenaren arabera denean, aurreko ataleko 2. arauan adierazitako epea ez dagoenaren heriotzaren adierazpenak irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

3. Aurreko ataleko 2. arauan eta 2. atal honen aurreko bi zenbakietan aipatzen den sei hileko epea hamar hilabetera luzatuko da eragilearen heriotza -gozamenarena edo aseguruarena- edo Kode Zibileko 966. artikuluan aipatzen diren gertaerak atzerrian gertatzen direnean.

38. artikulua.- Aurkezteko epeak luzatzea.

1. (2) Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 7. idatz zatian xedatutakoaren arabera, Bulego Likidatzaileak aparteko luzapena eman dezake heriotzaren ziozko eskualdaketei buruzko autolikidazioak aurkezteko, sei hilekoa, baldin eta bidezko kausa dela behar bezala frogatzen bada.
2. Ohiz kanpoko luzapen eskaera Zergaren Foru Arauaren 38. artikuluko 6. atalean aipatzen den ohiko luzapenerako epearen barruan aurkeztu beharko dute interesdunek, heriotza ziurtagiriarekin batera, eta adierazitako oinordekoen izena eta helbidea, eta eragilearekin duten ahaidetasun gradua (ezagutzen denean), eta eskaeraren oinarri diren ondasunen egoera eta gutxi gorabeherako balioa, eskubideak eta arrazoiak bertan idatzita.
3. Eskaera aurkezten denetik hilabete igaro ondoren inolako erabakirik jakinarazi ezean, ohiz kanpoko luzapena eman dela ulertuko da.
4. Ez da ohiz kanpoko luzapenik egingo eskaera luzapenerako ohiko epea igaro ondoren eginez gero.
5. Eskatutako ohiz kanpoko luzapena ukatuz gero, aurkezteko epea luzatu egin dela ulertuko da eskaera aurkeztu eta biharamunetik hasi eta ukatzeko erabakia jakinarazten den arte. Luzapen horren ondorioz aurkezpena ezarritako epeetatik kanpo egiten bada, subjektu pasiboak atzeratzeagatik interesak ordaindu beharko ditu epea amaitu zenetik igarotako egunengatik.
6. (2) Ohiz kanpoko luzapena emateko erabakiak berekin dakar subjektu pasiboak autolikidazioa aurkezteko ohiko epea amaitzen denetik atzeratzearen zergaren eta interesen kuotaren % 5eko errenergua ordaindu beharra.

39. artikulua.- Aurkezteko epeak etetea.

1. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergarekin kargatutako zerga egitateekin lotutako ekintzei eta kontratuei dagokienez auzia edo ondareen banaketa judiziala bultzatzen denean, interesdunek horren berri eman beharko diote Zerga Administrazioari.
2. (2) Foru Dekretu honetako 37. artikuluan ezarritako autolikidazioa aurkezteko epearen barruan auzia edo ondareen banaketa judiziala bultzatzen denean, aipatu epea eten egingo da. Berriz ere zenbatzen hasiko da prozedura judizialari amaiera ematen dion behin betiko ebazpena irmo egin eta hurrengo egunetik aurrera.
3. (2) Autolikidaziorako epearen barruan bultzatzen badira, zerga administrazioarekin hitzarmena egin ahal izango da, behin betiko ebazpena irmo izan arte ordainketa etetea. Betiere, interesdunak aurretik eskatu badu.
4. (2) Autolikidazioa aurkezteko epea edo luzapena amaitu ondoren bultzatzen badira, eta agiria edo aurkeztu ez bada, administrazioak hori aurkez dadin eskatuko du. Interesdunak ordainketa eten egin ahal izango du ebazpen irmoa egon arte. Hala badagokio, ez da eragozpenik izango dagozkion zigorrak ezartzeko.
5. (2) Epeen etetea, edo hala badagokio ordainketaren etetea, ez da gertatuko auziaren gai diren ondasun eta eskubideen eskualdatzerako beste ezertarako. Hau da, ez da

gertatuko dokumentu edo eskualdatze berean sartutako gainerako egintza, ondasun eta eskubideetarako.

6. [\(2\)](#)

7. Honako hauek ez dira auzi gaitzat hartuko aurreko ataletan aipaturiko epeak etetearen ondorioetarako:

- a) Testamentuak irekitzea edo eskritura publiko egitea xede duten eginbide judizialak.
- b) Jaraunspena onartzeko inbentarioak egitea, onura horrekin edo erabakitzeke.
- c) Tutorea, zaintzailea edo defentsari judiziala izendatzea.
- d) Ondareen banaketa judiziala eta oinordekoen adierazpena, inor aurka agertu ezean.
- e) Oro har, borondatezko jurisdikzioko jarduketak, auzi izaerarik hartzen ez badute.
- f) Legezko atzera eskuratze edo dohaineko justiziaren onura eskaera.
- g) Testamentukoaren edo abintestatoaren aurkako zorrak betetzeko erreklamazioak, hartzekodunaren eskariz dagokion epaiketa unibertsala bultzatzen ez bada.

8. Ondareen banaketa judiziala bultzatzeak epeak etetea ekarriko du, eta berriz zenbatzen hasiko da autoa irmo egin eta hurrengo egunetik aurrera; aurka agertuz gero, auziari amaiera ematen dion epaia edo banaketa eragiketak onetsiko dira; eta bestela, interesdun guztiek bultzatutako epaiketatik atzera egiten dutenetik aurrera.

9. Artikulu honen ondorioetarako, auzi gaia demanda aurkezten denean hasten dela ulertuko da.

10. Ondorio horietarako, auzi gaien artean sartzen dira eskualdaketa zehazten duen agiriaren edo testamentuaren faltsutasunari buruzko zigor prozedurak.

11. [\(2\)](#) Sei hileko epean, alde auzilariak auziarekin jarraitzea eskatzen ez badute, dagokien autolikidazioa aurkeztu beharko dute auzi kontratuari edo ekintzari dagokionez, hura amaitutakoan ondorioz ez duela eragin adierazten bada dagokion itzulketa erreserbatuta. Epategiek auziari bide eman zion eskaera iraungi dela adierazten badute, epeak ez dira etendakotzat hartuko, eta ondorioz, autolikidazioa aurkezteko araudiko epeak amaitu eta biharamunetik hasita dagozkion atzeratzeagatik interesak eta zehapenak exijituko dira. Aldeek hala adostuta autoen auzibidea eteten bada, eskatzen duten egunetik aurrera hasiko da zenbatzen berriz ere etendako aurkezteko epea.

2. ATALA DOKUMENTUAK AURKEZTEKO LEKUA

40. artikulua.- [\(1\)](#)

3. ATALA ESKUMEN ARAZOAK

41. artikulua.- [\(2\)](#) Eskumen arazoak.

Eskumenik ez daukan administrazio bati ordaintzeak ez du askatuko zergaduna autolikidazioa Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako zerbitzu egokiei aurkeztu eta, bidezkoa izanez gero, ordaindu beharretik.

4. ATALA AUTOLIKIDAZIOAREN IZAPIDETZA [\(2\)](#)

42. artikulua.- [\(2\)](#) Autolikidazioaren izapidetzea.

1. Zerga likidatu behar duen bulegoak aurkezleari itzuliko dio aurkeztutako notaritzako, justiziako, administrazioko edo eremu pribatuko agiria. Bertan oharra estanpatuko da, diru sarrera egin dela eta kopia aurkeztu dela ziurtatzeko. Sarrera oharra kopian ere jasoko da, eta zerga likidatu duen bulegoan gordeko da zerga egitatea aztertu eta kalifikatzeko. Eta, hala badagokio, likidazio osagarri edo osagarriak zuzendu, egiaztatu edo egiteko.

2. Autolikidazioa sartu beharreko zerga kuota ez den kasuetan, zerga likidatu zuen bulegoak autolikidazioa zigilatuko du eta jatorrizko dokumentuan oharra emango du. Interesdunaren arabera egoki den kalifikazioa jasoko du. Aurkeztu duenari itzuliko dio originala eta kopia arrunta gordeko du, aurreko idatz zatian jasotako eraginetarako.

3. Zerga likidatu behar duen bulegoak dokumentuetan jasotako zerga egitateen azterketa eta kalifikazioa egingo du, eta hala badagokio, likidazioak bidaliko ditu. Datu edo aurrekari berriak aurkeztu behar direnean, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, horiek aurkezteko.

4. Balioak egiaztatzeko administrazioko peritoak erabiliko balira bitarteko gisa. Zerga likidatzen duen bulegoak baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda bidaliko die zerbitzu teknikoei. Azken horiek eskatutako irizpena eman beharko dute, eta egoki arrazoitu beharko dute.

5. Beharrezko datu eta aurrekari guztiak edukita, balioak egiaztatuko dira. Hortik lortutakotik egoki diren likidazioak egingo dira.

6. Eskuraketa edonolakoa dela ere, zerga egitatea eta bere balioa behin betiko egiaztatu gabe bidaltzen diren likidazioak behin-behinekoak izango dira.

43. artikulua.- (2)

44. artikulua.- (2) Konturako autolikidazio partzialak.

1. Foru Dekretu honetako 34. artikuluko 4 idatz zatian ezarritakoarekin bat, heriotzagatik jasotzen diren eskuraketak badira, subjektu pasiboek zergaren autolikidazio partziala egin ahala izango dute. Eragilearen kredituak kobratzeko, irabazitako eta kobratu gabeko ondasunak kobratzeko, baita gordailuan dauden ondasunak, baloreak, gauzak edo dirua jasotzeko ere. Beretsu jardungo dira antzeko kasuetan, bestelako egoera duten ondasunen kasuan, autolikidazio partziala justifikatzen duten nahikoa arrazoi badago.

Autolikidazio partziala aurkezten duten subjektu pasiboek eskuratu dituzten ondasun eta eskubide guztien autolikidazioa aurkeztu beharko dute gero, foru dekretuan agindutako moduan.

2. Autolikidazio partziala egiteko zergaren tarifa aplikatuko zaie tartean diren ondasunen balioari, inolako murrizketarik gabe.

3. Interesdunek autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko dituzte dokumentu beraren bi kopia. Autolikidazio partziala izango duten ondasunen balioa eta egoera adierazi beharko da bertan, baita ordainketa egin edo eskatzailearen eskubidea ziurtatzen duen tituluaren ematea burutu behar duen pertsonaren edo erakundearen izena ere. Zerga likidatu behar duen bulegoak ale bat itzuliko du, aurkezpenaren eta ordainketa sarreraren oharrarekin.

4. Autolikidazio partzialaren zioz egiten den diru sarrera ondorengo zerga ordainketaren kontura egin dela jasoko da, kasuan-kasuan jasotzen den jaraunspen ondorengotzaren arabera.

45. artikulua. (2) (5) Komisarioaren betebeharrak testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko jaraunspenetan.

1. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko jaraunspenetan, komisarioak 6 hilabeteko epea du, kausatzailea hiltzen den egunetik aurrera edo Kode Zibilaren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera heriotza adierazpenak irmotasuna hartzen duenetik aurrera, jaraunspenetako ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiriak aurkezteko. Gainera, Zerga Administrazioak egoki irizten duen beste edozein agiri aurkezteko eskatu diezaioke.

2. Komisarioak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspeneko ondare elementuen inbentarioan gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare aldaketa horiek ez badute Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten. Komunikazio hori ondare aldakuntza gertatzen denetik hilabete igaro aurretik aurkeztu behar da; berarekin batera, aldakuntzaren frogagirien kopiak aurkeztu behar dira.

Komunikazio horretan berariaz adierazi beharko da eskualdatzen diren ondasun eta eskubideen, eta, hala badagokio, horien ordezkuratu diren ondasun eta eskubideen identifikazioa. Komisarioak aurreko lerroaldean aipatzen diren aldaketak jakinaraziko ditu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren Foru Aginduak ezartzen dituen eredu, epe eta lekuetan. Informazioa ematen duen aitortzen hori aurkezteko, bitarteko telematikoak erabili ahalko dira.

3. Era berean, hilabeteko epean, testamentu ahalordea modu ezeztazinean –hala partzialki nola osorik– erabiltzen den egunetik edo hura iraungitzeko arrazoietako bat gertatzen den egunetik aurrera, komisarioak aurreko alderdi horien berri eman behar dio Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu behar dio, edo, bestela, ahalordea iraungi dela justifikatu.

Komunikazio horretan beti agertu behar da, beren-beregi, testamendu ahalordearen erabilerak edo iraungipenak eragiten dien ondasun eta eskubideen identifikazio zehatza. Ondasun eta eskubideok adjudikatu zaizkien kausadunen nortasun datuak ere jarri behar dira, eta jaraunspeneko eskuraketa horiengatik ordaindu beharreko zergaren sortzapen eguna ere bai.

4. Artikulu honetan ezarritakoa gozamedun ahaldunari ere izango zaio aplikagarri.

5. ATALA ZERGAREN ORDAINKETA

46. artikulua.- [\(2\)](#) Baimena, erabilpena, bankuko saldoak.

1. Jaraunspenezko eskualdaketengatik aurkeztutako autolikidazioei dagokien zerga ordaintze aldera, interesdunek hala eskatuta, zergaren bulego likidatzaileak finantza erakundeei baimena eman ahal izango die kausatzailearen izenean gordeta dituzten balore higigarriak eta finantza produktuak besterentzeko, behar besteko zenbatekoarekin; hartara, lortutako produktuaren bidez edo, hala badagokio, beren kontuetako saldoari dagokionaren bidez, autolikidazio horien zenbatekoa Foru Aldundiari emango zaio.

2. Aurreko idatz zatian hizpide den eskabidea gainerako autolikidazioekin aurkeztu beharko da. Behin eskabidea jasota, horren inguruko ebazpena emango da, bost eguneko epean, eta kopurua borondatez ordaintzeko epea etengo da. Balore higigarriak besterentzeari dagokionez, etetea ez da inolaz ere hiru hilabetetik gorakoa izango.

III. TITULUA PROZEDURA BEREZIAK

47. artikulua.- Zerga egitateen presuntzioen gaineko prozedura.

Zergari buruzko foru arauaren 8. artikuluan aipatuta dauden eta zergari loturiko ondare gehikuntzarik egotearen gaineko presuntzioek oinarri dituzten egitateetakoren baten berri izanez gero, eta horiek ez badira autolikidatu dokumentuak aurkezteko ezarritako epeen barruan, administrazioak interesdunei jakinaraziko die, zerga egitaterik egotearekin bat ote datozen adieraz dezaten. Interesdunek egoki irizten dituzten alegazioak hamabost eguneko epean aurkeztu ahalko dituzte eta froga edo agiri egokiak ekarri. [\(2\)](#)

Epe hori igaro ondoren, espedientea ikusita, bulego likidatzaileak bidezko den ebazpena emango du eta, hala badagokio, bere ustez sortu diren zergapeko egitateei dagozkien likidazioak egingo ditu.

48. artikulua.- (2) Jaraunspen masari ondasunak gehitzeko prozedura.

1. Heriotzaren ziozko eskuraketa bat jasotzen duen autolikidazio osoa aurkezten bada, eta Bulego Likidatzaileak egiaztatzen badu kausatzailearen ondasun inbentarioan ez direla aipatu Zergari buruzko Foru Arauko 15. artikuluan aipatutako egoeretan daudenak, interesdunei jakinaraziko die eta hamabost eguneko epealdia emango die ondasunok kausatzaileak utzitako ondasuntzari gehitzearekin ados daudela adierazteko.

2. Interesdunek gehitze hori onartzen badute, egiten diren likidazioek zerga oinarrian sartuko dute gehitu ahal diren ondasunen balioa.

Baldin eta interesdunek, eman zaien epean, ondasunak gehitzeko proposamena atzera botatzen badute edo erantzuten ez badute, zerga likidatzeko foru dekretu honetan ezarritako jarduketekin jarraitu ahalko da; baina bulego likidatzaileak espedientea instruituko du, azken batean, ondasunak gehitzeari buruz erabakitzeko: interesdunei hamabost eguneko epea emango die egokiesten dituzten alegazioak egin eta agiriak edo frogak ekar ditzaten. Epe hori igarota, gehitze horren bidez kotasunari buruzko erabakia hartu eta emango da.

Ondasunak gehitzearen aldeko erabakiaren aurka birjarpenezko edo ekonomia-administraziozko errekurtsioa jarri ahalko da.

3. Gehikuntzaren aldeko administrazio bidea bukatutakoan, administrazioak egoki den zuzenketa egin ahal izango du.

49. artikulua.- Zerga sartu ostean agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozedura.

Administrazioak zerga kuotak sartu ondoren agerian jartzen diren kausatzailearen zorrak kentzeko prozeduran honako arauak hartuko dira kontuan: (2)

1. (2) Zorrak benetan kentzeko, kendu ez den zorraren zenbatekoari dagokion zergaren zatia itzuli behar da. Zergaren zati hori sartutako kopuruaren eta autolikidazioa egitean zorraren zenbatekoa kendu izan balitz sartuko zatekeenaren artean dagoen aldea da.

2. (1) Interesdunek Bulego Likidatzaileari idazki bana aurkeztuko diote zuzentzekoa zuzen dezan eskatzeko, baita zorra dagoela edo zerga sartu ostean zorra ordaindu dela egiaztatzen duten agiriak ere.

3. Bulego likidatzaileak zorra dagoela edo ordaindu dela sinesgarriro egiaztatutzat hartuz gero, dagokion kopurua itzuliko da. Bestela, ukapenezko erabakia hartuko du, eta interesdunei horren berri eman eta beraren aurka aurkez ditzaketen bidezko errekurtsioak adieraziko dizkie.

4. (2) Artikulu honetan xedatutakoa ezin izango da aplikatu autolikidazioa aurkezteko epea ahitu denetik lau urte igaro badira, edo behin betiko administrazio likidazio irmoen kasuan.

50. artikulua.- Dohaintza hartzaileak ordaindutako dohaintza emailearen zorrak kentzeko prozedura.

Dohaintza emailearen zor bati dagokion zergaren zatia itzultzeko prozeduran honako erregelok hartuko dira kontuan, baldin eta zor hori hark dohaintzan eman dituen ondasunei dagokien eskubide errealarekin bermatuta badago eta zor hori dohaintza hartzaileak ordaindu badu dohaintzari dagokion zerga sartu ostean:

1. (2) Ordaindu den eta dohaintzaren zerga oinarrian kendu ez den zorrari dagokion zergaren zatizat hartuko da sartutako kopuruaren eta autolikidazioa egitean zorraren zenbatekoa kendu izan balitz sartuko zatekeenaren artean dagoen diferentzia.
2. (2) Interesdunek Bulego Likidatzaileari idazkia aurkeztuko diote, lau urteko epean, kasuan kasuko dokumentua edo aitorpena aurkezteko arauzko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Zuzentzekoa zuzen dezan eskatuko diote, baita zorra beren kontura ordaindu dutela egiaztatzen duten agiriak ere.
3. Bulego likidatzaileak uste badu dohaintza hartzaileak sinesgarriri kreditatu duela zorra ordaindu izana, hori itzuliko du. Bestela, itzulketa ukatzeko erabakia hartuko du, eta interesdunei horren berri eman eta beraren aurka jar ditzaketan bidezko errekursoak adieraziko dizkie. Hori guztia, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan egin beharreko likidazioaren kaltetan izan gabe.

IV. TITULUA ERREGISTROA IXTEA

51. artikulua.- Erregistroa ixtea.

1. (2) Jabetza Erregistroak, Merkataritzako Erregistroak eta Higigarrien Erregistroak, baita Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak ez dute onartuko inskribaketarik edo oharrik egitea, zerga honen mendeko den egitate edo kontraturik duen agiriarekin. Horretarako, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga Arabako Foru Aldundian ordaindu dela ziurtatu beharko da, edo bestela, horren mendeko ez dela edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duen aitorpena beharko da.
2. Aurreko paragrafoan ezarritako ondoreetarako, zerga ordaindu dela frogatutzat joko da agiriak hura frogatzen duen oharra badu eta berarekin batera ordainketa gutuna aurkezten bada, zerga zorra ordaindu dela edo zergapean egon ez dela edo salbuetsita egon dela agerrarazten duela.
3. (2) Erregistratzaileak jasoko du, inskripzioaren ertzan oharra eginda, eskualdatutako ondasuna edo eskubidea likidazio edo likidazioen ordainketaren mende dagoela, kasuan-kasuan egoki dena.
4. (2) Oharra ofizioz zabalduko da, eta ondorioz gabe geldituko da. Indargabetu egin beharko da likidazio edo likidazioen ordainketa gutuna aurkezten denean, eta, betiere, egin den egunetik lau urte bete direnean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengoan sartuko da indarrean.

DIPUTATU NAGUSIA: Ramón Rabanera Rivacoba

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO DIPUTATUA: Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea

OHARRAK

- (1) 35/2009 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa.
(ALHAO, 51. zk., 09-5-6koa).
- (2) 63/2009 Foru Dekretua, irailaren 22koa.
(ALHAO, 115. zk., 09-10-7koa).
- (3) 12/2010 Foru Dekretua, apirilaren 13koa.
(ALHAO, 46. zk., 10-4-30ekoa).
- (4) 45/2012 Foru Dekretua, abenduaren 18koa.
(ALHAO, 111. zk., 12-9-26koa).
- (5) 41/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa.
(ALHAO, 92. zk., 18-08-10ekoa).